

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5502

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 9koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bitartez ebatzi egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta tokiko gainerako erakundeek memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko 2022ko dirulaguntzen deialdia.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariaren 2022ko uztailaren 6ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta tokiko gainerako erakundeek memoria demokratikoa berreskuratzeko dituzten proiektuak diruz laguntzeko deialdia egin zen 2022rako.

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako erakundeak aurkeztutako eskaeretan atzera egitea onartzea.

Bigarrena.– II. eranskinean zerrendatutako erakundeek aurkeztutako eskabideak ez onartzea, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– III. eranskinean zerrendatzen diren erakundeei esleitzea memoria demokratikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko laguntzak, aipatutako eranskinean zehazten diren zenbatekoen arabera.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bilbao, 2022ko abenduaren 9a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
MIREN AINTZANE EZENARRO EGURBIDE.

I. ERANSKINA

ATZERA BOTATAKO ESKAERAK

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egiteko arrazoia
003	Larrabetzuko Udala	Burdin Hesiaren aztarnak	Borondatezko atzera egitea aurkeztu du
004	Larrabetzuko Udala	Larrabetzuko Memoria Historikoa web orria	Borondatezko atzera egitea aurkeztu du

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertze arrazioa
006	Amezketako Udala	Liburua: 1936-1945 Gerra Zibila eta Lehen Frankismoan. Errepresioa eta giza eskubideen urraketak	Ez du betetzen deialdiaren 14.2 artikuluan ezarritakoa, ez du lortzen esleipendun izateko gutxieneko puntuazioa.
008	Oiartzungo Udala	Oiartzunen 1936tik gaur egun arte izandako giza eskubideen urraketen ikerketa	Ez du betetzen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 19.3 artikuluan ezarritakoa, gainfinantzaketa gertatu delako.
012	Berangoko Udala	«La Despedida» eskultura	Ez du betetzen deialdiaren 8.3 artikuluan ezarritakoa; aurrekontua osatzen duten gastuak ez dira diruz laguntzekoak
024	Ubideko Udala	Liburua: Ubide, giza eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan (1936-1945)	Ez dute zuzendu eskatutakoa, ez dute aurkeztu PDF formatuan egindako ikerketa balorazioa egiteko (11.2 e) artikulua).
033	Usurbilgo Udala	Usurbilgo Andatza mendiko lubakiak berreskuratzea	Ez du betetzen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 19.3 artikuluan ezarritakoa, gainfinantzaketa gertatu delako.
037	Erandioko Udala	1/2022 proiektua: Erandioko Udalaren webgunea, memoria historikoa eta oraintsukoa hedatzeko	Ez dute zuzendu eskatutakoa, ez dute aurkeztu PDF formatuan egindako ikerketa balorazioa egiteko (11.2 e) artikulua).

2022ko abenduaren 22a, osteguna

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
002	Portugaleteko Udala	A la memoria de ELLAS erakusketa	1.796,15
021	Elgoibarko Udala	Gerra Zibileko Memoria ikertzeko eta berreskuratzeko eta Kalamua-Morkaikuzirardamendi aldera memoria ibilbidea seinaleztatzeko proiektua	7.532,62
023	Busturiako Udala	Ángel Lekuonari omenaldia	5.835,25
020	Lezamako Udala	Lezamako memoriaren ibilbidea seinaleztatzea	4.323,73
001	Portugaleteko Udala	Matxitxakoko lurmuturreko guduaren 85. urteurrena	4.331,47
014	Gordexolako Udala	Gordexolan, Zalduko Burdin Hesiaren memoriaren ibilbidea seinaleztatzeko, hedatzeko eta balioesteko proiektua. Bigarren fasea.	5.631,21
016	Turtziozko Udala	Turtzioz, Gerra Zibileko Memoriaren ibilbideak sortzeko proiektua. 1. fasea: hiri-ibilbidea	5.875,45
035	Galdamesko Udala	Burdin Hesiaren Memoriaren ibilbideak seinaleztatzea. 1. fasea	3.434,88
010	Legutioko Udala	Legutioko (Araba) memoriaren ibilbideak ezartzeko proiektua: 2. fasea. Albertiako ibilbideak.	5.649,47
031	Gamiz-Fikako Udala	Gamiz-Fikan Burdin Hesia hautsi izanaren 85. urteurreneko ekitaldia	3.954,63
034	Galdamesko Udala	Galdames 2022 memoria historikoa berreskuratzea: kontakizunen liburua.	6.228,20
007	Donostiako Udala	Ibilbide antzeztua: Donostiako Oroimen Historikoaren bideak - 2022	3.558,83
019	Ugaoko Udala	Ugao-Miraballesko Burdin Hesiaren XI. Aste Historikoa: penintsulako iparraldeko kontzentrazio-esparru frankistak.	1.069,63
015	Irungo Udala	Memoria Historikoaren Hilabetea erakusketa eta konferentzia	2.468,82
032	Gamiz-Fikako Udala	Gerra Zibilaren Memoria ikertzeko eta berreskuratzeko proiektua eta Atxispeko San Pedro alderantz doan Memoriaren Ibilbidea seinaleztatzea	4.896,20
022	Ubideko Udala	Ubideko memoriaren ibilbidea seinaleztatzea eta horren berri ematea	3.321,89
040	Gernikako Udala	Astrako aireko babesaren balioa nabarmentzea	7.532,62
041	Balmasedako Udala	Balmasedako memoriaren ibilbidea	3.369,34
043	Munitibar Arbatzegi Gerrikaizko Udala	1937-04-26 Memoria gara? Aire erasoaren 85. urteurreneko ekitaldia.	1.065,38
025	Urdulizko Udala	Urdulizko memoriaren ibilbidea seinaleztatzea eta horren berri ematea	3.163,70
018	Ugaoko Udala	Ugao-Miraballesko Burdin Hesiaren memoriaren ibilbideko informazio-seinaleak indartzea	2.666,55
026	Urduñako Udala	Askurengo (San Pedro) memoriaren ibilbidea Urduñatik seinaleztatzea eta dibulgazio digitala eta paperezkoa egitea	3.024,09
030	Amurrioko Udala	Askurengo (San Pedro) memoriaren ibilbidea Aloriatik seinaleztatzea eta dibulgazio digitala eta paperezkoa egitea	2.666,55
013	Durangoko Udala	Emakumeen Kartzelaren Memoria Gunea	2.757,13

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (eurotan)
027	Urduñako Udala	Ikerketa: Lan behartuak eta esklabismoa Urduñan (1937-1941)	2.692,91
029	Arrasateko Udala	Memoriaren eguna: Agurtzane Arregi Letamendiri oroimen eta aitortza instituzionala	2.705,34
039	Gernikako Udala	Gernikako bonbardaketaren berri emateko informazio-panelak	6.560,96
042	Munitibar Arbatzegi Gerrikaizko Udala	Liburua: 1937-04-26 Munitibar: Aire eraso baten kronika?	5.882,98
009	Etxebarriko Udala	Memoria duten herriak. Memoria Ibilbideak - 2. fasea Etxebarria	2.603,73
011	Markina-Xemeingo Udala	Memoria duten herriak. Memoria Ibilbideak. Markina Xemein	2.603,73
017	Berriatuako Udala	Memoria duten herriak. Memoria Ibilbideak (2. fasea) Berriatua	2.603,73
028	Arrasateko Udala	«Memoria partekatu baterantz» liburuaren edizioa eta 2. inprimaketa	3.992,29
005	Altzoko Udala	Liburua: Gerra Zibileko biktimen eta frankismoko lehenengo garaian Altzon gertatutakoaren oroimen historikoa ikertzeko eta berreskuratzeko proiektua	4.364,67
038	Gernikako Udala	Gernikako bonbardaketaren 85. urteurreneko argitalpenak.	5.452,71
036	Maruri-Jatabeko Udala	Ikerketa: Gerra Zibilaren eta gerraondoko memoria historikoa berreskuratzeko proiektua Maruri-Jataben: Jata mendiko memoriaren ibilbidea	1.883,16
Guztira			137.500,00